

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

EIBARKO UDALA

Karrerako funtzionario izendapena Eibarko Udaleko Poliziaren Lege-aholkulari plaza betetzeko.

Gobernu Batzarrak 2022ko abenduaren 9an Poliziaren Lege-aholkulari plaza bat merezimendu-lehiaketa bidez hornitzeko onartutako oinarri orokorrak eta espezifikoa 2022ko abenduaren 29an argitaratu ziren Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, eta oinarri orokor horien zuzenketa 2023ko maiatzaren 23an argitaratu ziren Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

2023ko azaroaren 21ean *Estatuko Aldizkari Ofizialean* deialdiaren laburpena argitaratu zen, eskabideak aurkezteko epea zabalduz.

2024ko azaroaren 12an, Alkateak ebazpena eman zuen, eta, horren bidez, praktiketako funtzionario izendatu zuen, sei hilabeterako, honako hautagai hau: Ainhize Ortuondo Aresti (2024ko azaroaren 21eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 225. zk.).

2025eko maiatzaren 14an, horretarako izendatutako tutoreak praktikaldiari buruzko txostena eman du, behin betiko Gai kalifikazioarekin.

Hautaketa prozesua arautzen duten oinarriak eta horietako lehenengo oinarrian jasotako araudia kontuan hartuta, 2025eko maiatzaren 14an sinatutako alkatetza ebazpen bidez

EBATZI DA

Lehena. Ainhize Ortuondo Aresti andrea izendatzea Eibarko Udaleko karrerako funtzionario, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurri buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritakoaren arabera honako plaza betetzeko:

— *Plaza:* Poliziaren lege-aholkularia.
Azpitaldea: A1.

Bigarrena. Erabaki honek eragina izatea 2025eko maiatzaren 14tik hasita.

Hirugarrena. Erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Eibarko Udaleko web orrian argitaratzea.

Laugarrena. Langileari eta sindikatuei jakinaraztea.

Akordio honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazio Auzietarako Epaitegian, iragarki hau jakinarazi edota argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epe barruan, bidezkotzat jo daitekeen beste edozein errekurtso jartzeko eragozpenik gabe.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke ebazpena eman duen organoaren aurrean, jakinarazi edota argitaratzen den unetik hilabete epean.

Eibar, 2025eko maiatzaren 14a.—Jon Iraola Iriondo, alkatea.
(3706)

AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Nombramiento de funcionaria de carrera para ocupar una plaza de Asesor/a Jurídico/a de Policía del Ayuntamiento de Eibar.

La Junta de Gobierno de 9 de diciembre de 2022 aprobó Las bases generales y específicas para la provisión por concurso de méritos de una plaza de Asesor/a Jurídico/a de Policía las cuales fueron publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 29 de diciembre de 2022 y la corrección de las bases generales se publicó en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 23 de mayo de 2023.

El 21 de noviembre de 2023 se publicó en el *Boletín Oficial del Estado* el extracto de la convocatoria, abriendo el plazo de presentación de solicitudes.

El 12 de noviembre de 2024, el Alcalde dictó resolución nombrando funcionaria en prácticas, por un periodo de seis meses, a la siguiente candidata: Ainhize Ortuondo Aresti (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 225, de 21 de noviembre de 2024).

El 14 de mayo de 2025, la persona tutora nombrada al efecto ha emitido informe en relación al periodo de prácticas de la persona candidata, otorgando la calificación definitiva de Apta.

Teniendo en cuenta las bases que rigen el proceso selectivo y la normativa recogida en la base primera de las mismas, por resolución de alcaldía de 14 de mayo de 2025

SE HA RESUELTO

Primero. Nombrar a Dña. Ainhize Ortuondo Aresti funcionaria de carrera del Ayuntamiento de Eibar, de acuerdo con lo establecido en la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público, para ocupar la siguiente plaza:

— *Plaza:* Asesor/a Jurídico/a de Policía.
Subgrupo: A1.

Segundo. Que el presente acuerdo surta efectos desde el 14 de mayo de 2025.

Tercero. Publicar el presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento de Eibar.

Cuarto. Notificar a la trabajadora y a los sindicatos.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo y pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo o cualquier otro recurso que se estime procedente ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su notificación y/o publicación.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado anteriormente, contra este acuerdo se podrá interponer recurso de reposición ante el mismo órgano que lo ha dictado, en el plazo de un mes, que se contará desde el día siguiente al de su notificación y/o publicación.

Eibar, a 14 de mayo de 2025.—El alcalde, Jon Iraola Iriondo.
(3706)